

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak, oro har, gazteak izango dira haiek direlako gailu elektronikoak erabiltzen trebatuta daudenak eta ikasteko tradizionalak ez diren metodoak erabiltzen ohituta daudenak. Gazteak dira gehienbat teknologia berrien alde egiten dutenak eta haien erabilera esparru ia guztietara zabaltzen dutenak. Hala eta guztiz ere, helduentzako, hau da, 40-45 urtetik gorakoentzako, ere zuzenduta egongo den plataforma jarriko dugu eskuragai azken finean, hizkuntza bat ikasteko eskaintzen dugun metodoa edonorentzat baliagarria eta aproposa izango delako.

Gure bezeroek praktikotasuna, erraztasuna eta zehaztasuna dute gustuko. Hori horrela izanik, plataformaren funtzionamendua sinplea behar du izan eta horrekin batera, argi azaldu behar dira aukera guztiak. Horretarako, ezinbestekoa izango da gure aplikazioaren diseinu funtzional eta garbia egitea, non erabiltzaileak argi izango duen zertan ari den eta nola ibili aurrera eta atzera nahi duen momentu oro. Halaber, erabiltzen dituzten zerbitzuen funtzionamendu zuzena eta azkarra. Hori modu horretara izan dadin, premiazkoa izango da teknologiak eskaintzen dizkigun aukerei ahalik eta etekinik handiena ateratzea eta denbora igaro hala, gure plataforma berritzea eta eguneratzea.